




ANDOAINGO UDALA



ZAHARRAK BERRITUZ 14

Andoaingo 2. eskuko objektuen azoka

Pilatuta dituzun gauzak saldu nahi al dituzu?

“ZAHARRAK BERRITUZ 14” Andoaingo 2. eskuko objektuen hamalagarren azoka prestatzen ari gara, eta herriko zein inguruko herrietako jendeak parte hartzea nahi dugu, zuk erabiltzen ez dituzun gauza horiek guztiak oso baliagarriak izan baitaitezke, eta, gainera, ingurumenari mesede egiten baitiozu. Gainera, diru pixka bat irabazteko aukera izango duzu objektuak salduz gero.

Beraz, bizikletak, patinak, patineteak, arropa, jostailuak, liburuak, diskoak, edo erabiltzen ez dituzun bestelako gauzak baldin badituzu, nahiz eta asko ez eduki, anima zaitetz eta jar zaitetz gurekin harremanetan:

686-427-565 / 943-492-215

Arreta-ordutegia: 8:00-13:30

Izena emateko azken eguna irailaren 21a izango da, eta azoka irailaren 29an antolatuko du Udalak, Zumea plazan, goizeko 10:00etatik 14:00etara.

Andoainen, 2018ko irailaren 4an

